

Diru iturriak

Calm Mind-en diru-sarrerak bi zerbitzu nagusiren bidez sortzen dira: ikastetxeei zuzendutako talde-hitzaldiak eta Donostiako gure egoitzan eskainitako banakako saioak.

Zerbitzu nagusia ikastetxeetako hitzaldi dinamikoak dira, Batxilergoko eta DBHko ikasleei antsietatea kudeatzen eta ongizate emozionala hobetzen laguntzeko diseinatuak. Talde-saio horietan antsietate-atake baten aurrean nola jokatu aztertzen da, besteak beste, eta hezkuntza-maila bakoitzaren behar espezifikoetara egokitutako teknika praktikoak eskaintzen dira. Hitzaldi hauen tarifak hitzaldiaren iraupenaren eta taldearen tamainaren arabera aldatzen dira. Hitzaldiaren prezioak 150 eta 200 euro artekoak dira tailer bakoitzeko, taldearen tamainaren eta iraupenaren arabera. Horren barruan sartzen dira materialak eta ikastetxe bakoitzerako egokitutako edukia prestatzen emandako denbora.

Bigarren zerbitzua banakako saioak dira, laguntza pertsonalizatuagoa behar duten ikasleentzat pentsatuak. Horiek Donostiako gure egoitzan bakarrik egiten dira, eta bertara joateko aukera dute ikasleek, gurekin zuzenean hitzordua eskatu ondoren. Zerbitzu hau ere guk emango dugu; izan ere, formakuntza profesionala dugu. Saio hauen prezioak aldiz, 30€ eta 50€ bitarteakoak dira saio bakoitzeko, iraupenaren eta zerbitzu gehigarrien arabera, adibidez, material pertsonalizatuak edo jarraipen espezifikoak.

Negozio-eredu horrekin, gure diru-sarrerak zerbitzu zuzenak eta espezifikoak eskaintzera bideratzen ditugu, kalitatea eta arreta pertsonalizatua lehenesten dituen egitura sinple eta eraginkorra mantenduz.

Prozesua errazteko, enpresak hainbat ordainketa aukera ezberdin eskaintzen ditu, bezero bakoitzak erosoena aukeratu dezan. Ordainketak, bizum bidez, banku transferentzia bidez, PayPal bidez edo kontu korrante bat erabiliz egin daitezke, pertsona bakoitzak bere beharretara hobeto egokitzen den aukera aukeratu ahal izatea ziurtatuz.

